

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Aldasoro Gonzalez

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Andoainen jaioa, Larramendi kalean. Aita Urnietakoa zuen, burdingilea, eta ama Andoaingoa. Hiru senide ziren. Gerra garaian aita fusilatu egin zuten, eta bederatzi urterekin Donostiako Aiete auzora joan zen bizitzera, Bera-Bera baserrira. 27 urte arte bizi izan zen han. Hainbat lanetan ibilia da: eraikuntzan, Antiguako izotz-lantegian... Bertsotarako zaletasun handia izan du beti, eta hainbat bertso zahar kantatu ditu, 'Txirrita'renak batez ere.

Zintak

DON-148

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-09-19
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Etxe azpian aitaren tailerra, etxe atzean baratzea

- **Erref:** DON-148/002
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Aita errementaria zen; gerra garaian hil zuten. Andoainen kalean bizi izan ziren, etxe azpian zuten tailerra eta etxe atzean baratzea.</p>

2. Aita eta osaba galdu zituenekoa

- **Erref:** DON-148/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Tiro hotsak 1936ko uztailearen 18an hasi ziren, aitarekin baratzean zegoen gerra hastean. Etxera bidean zihoan batean harrapatu zuten aita txapelgorriek, Andoaingo udaletxeko kalabozora eraman zuten, handik egun batzuetara fusilatu zuten Tolosan, 33 urte zituela. Osaba arto bila joan zen batean, teniente koronel batek bertan hil zuen. Aita eta osabarik gabe geratu zen oso gazterik.

3. Ama presondegitik aterata, Aietera bizitzera

- **Erref:** DON-148/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Ama arraina saltzen hasi zen seme-alabak aurrera atera ahal izateko. Senarra hilda zuenez, bera ere gorria zelakoan moilara arrain bila joan zen batean hartu eta eraman egin zuten. Gero, etxera ekarri zuten arren, astero sinatzera joan behar izaten zuen. Emakumeei ilea moztu eta kalean paseatzera behartzen zituzten, jendea irainak botatzen aritzen zen bitartean. Andoaindik Aieteko baserri batera joan ziren lanera eta bizitzera, ama eta bi seme.

4. Eskolan 'Cara al Sol' eta errezoak soilik

- **Erref:** DON-148/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Andoainen maisu katalan bat zuten, euskaraz arituz gero makilarekin jotzen zituen ikasleak. Bi urtean zehar joan omen zen eskolara, eta Cara al Sol kantatzen eta errezatzen besterik ez omen zuen ikasi. Lanean hasi zenean hasi omen zen ikasten.</p>

5. Aieteko bizimodua

- **Erref:** DON-148/006
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:07:37. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Aietera bizitzera joan zirenean dena zen mendia, fruta arbola... oso elegante zegoen Aiete, baserri asko ere baziren orduan, orain ez da ia bat ere gelditzen. Lan asko izaten zuten egunez, ganadua zaindu, eta abar, zaldi karroarekin jaisten zituzten berdurak plazara. Gauez, zinera edo boxeo ikustera irteten ziren. "Berabera"ko jabea hil zenean, iloba militarrek lurra saldu eta jolastoki bat egin zuten bertan, bertatik alde egin behar izan zuten. 27 urte arte bizi izan zen baserrian, baina eraikuntza lanetan ere hasia zen lehenagotik.

6. Arto zakuekin Hernanira autobusez

- **Erref:** DON-148/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

23 urterekin hasi zen eraikuntzan lanean, soldadutza amaitu orduko, eta 70 urte bete arte aritu da lan horretan. Aurretik baserriko lan mordo eginga da, 15 kilo arto hartuta Hernanira joaten zirenekoa gogoratzen du. Autobusean joaten ziren Hernaniko errotara, eta itzultzean goardek zakuetan zekartena ez kentze aldera, txoferrari geldialdia lehenago egiteko eskatzen zieten, basotik oinez joateko etxera.

7. 'Lazkao Txiki' eta Mitxelenarekin bertsotan

- **Erref:** DON-148/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Mitxelena, Lazkao Txiki eta beste hainbat bertsolarirekin kantuan aritua da, umetatik izan du bertsolaritzarekiko zaletasun handia. Sagardotegietan, tabernetan... aritzen ziren bertsotan, Alejandroren bodegan goizeko seiak arte ere aritua da Mitxelenarekin.</p>

8. 'Txirrita' eta 'Pello Errota'ren bertsoak

- **Erref:** DON-148/009
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Txirrita eta Pello Errotak goiz batean Andoainen elkarri botatako bertsoak abesten ditu.</p>

Transkripzioa

- Ba, nahi baezu hasiko gea bertsuak kantatzen Txirrita ta Pello Errotanak. Zuk esan noiz.
- Bai, ba, ointxe bertan.
- Bueno, egun batian Txirrita gosaltzen ari emen zan Anabitarten bodegan, Andoainen. Ta Pello Errota pasa emen zan. Ta mutil gaztiak han ta: "Pello! Txirrita hor zio!" E? Jun emen zan atetik ta bertsa:

Nik bezelaxen esango dute
begira dauden guziyak
horretarako lagun bihar du
jangoikuaren graziyak
ez gera alkar menderatzeko
asmuarekin hasiyak
mantentzeko hainbat ez dira aurtengo
hargiñen irabaziyak.

Hargiña baizan. Ta Txirritak bueltan:

Hitz egin zazu bihar dan bezela
mingain gaixtoko trastia
askoz gehiago egin dezu
hargin guziyak nahastia
bai al dakizu nola dauzkazun
haurrak eta emazia
zure errotako laka pizar hoik
ardotako hainbat ez dia.

Beste batian, herri koxkorren batea [...] emen zian Pello Errota ta Txirrita, biyak. Eta Txirrita, ordun balkoitik balokira aitzen abizian herri koxkorretan, ta Txirrita balkoiyian zai jarri emen zitzaion. Ta Pello ere emen zetorren, ta goitikan:

Bertso eder bat kanta bihar det
balkoi hontatik kalera
hor datorren gizona horrek
ematen ditene kolera
Astiasutik honera dator
gaur arronka jotzera
ni hemendik jaixten banaiz laister
jira bihar du atzera.

Eta Pellok behetikan. Eztarri txarra dakat, e! Eta Pellok behetikan:

Ez nuan uste mundu honetan
arrazoi hori bazanik
modu horretan ez da tratatzen
pasadizoko pertsonik
ez du esan inork arronka jotzera
gaur etorriya naizenik
balkoi hortatik jaitsiko ote da

ni jirako naun gizonik.

9. 'Txirrita'ren bertsoak I

- **Erref:** DON-148/010
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Txirritak gurasoei eta txakur bati botatako bertsoak abesten ditu.</p>

Transkripzioa

Beste batian Txirrita etxera emen zijuan ta aitta ta ama baratzen ari emen zian. Ta Txirritak bertsua aittai ta amai:

Ettxeko maiorazko
nitzen tokamentuz,
baldin aita serbittu
banun pulamentuz;
lehengo toki xarrera
bildutzen naiz puntuz,
hau ere galduko det
ez banabil kontuz.

Beste batian ordun hoik Ereñozun bizi zian, hor, zulo hortan bizi zian, ta, zea, etxera emen zijuan ta txakur bat zaunkaka ta [...]. Geatu emen [zion] ta:

Txakurra, nora hator
holako ariyan?
bazekit haokela
atari-goardiyan.
Ez al ditek bazkariyik
eman eguardiyan?
Berriz´e haziko zaik
illia ipurdiyan.

10. 'Txirrita'ren bertsoak II

- **Erref:** DON-148/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:19:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Txirritak botatako bertso batzuk abesten ditu, bere "testamentua" ere ba omen du etxean, baina ez omen du irakurtzen.</p>

Transkripzioa

- Beste batian, ama esnia saltzera joten emen zan, ta `Txirrita´ hau gau guzin parrandan ibilita, bere lagunakin. Ta ama. Ta amai bertsua:

Atso lepa luze bat
hua dek nee ama,
Erreterian zeukak
sorgiñaren fama;
soñian jazten dixkik
hiru edo lau gona,
ni gaixtua nauk baiñan
bera ez dek ona.

Amai. Aber.

- Bertso hauek nun ikasitakuak dia? Entzunda? Jendiai entzunda?
- Entzunda! Etxian badakat `Txirrita´n testamentuba´re, baiña ez det sekula letzen. Ijituan bertsuak-eta, horrek kristonak zittun. Aber. Oain beste bat segidakua, hoitakua. Emen zian zazpi senide ta aitta ta ama, beatzi. Ez, bost senide ta aitta ta ama, zazpi. Ta zazpi lagunentzako beatzi sardinar. Ta amantzako, badakizu, aitta ta amantzat bina ta bestiantzat bana. Ta `Txirrita´k:

Zazpi lagunentzako
beatzi sardiña,
hau ez da familirako
gauza berdiña;
guretzako bana eta
zuentzako biña,
aita jan egin dezagun
bat eta erdiña.

11. 'Txirrita'ren bertsoa 'Udarregi'ri buruz

- **Erref:** DON-148/012
- **Iraupena:** 00:00:43. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Txirritak Udarregiren inguruan botatako bertsoa kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Bueno, hoitakuak, `Txirrita´nak, [beste hoinbeste] kantatuko ditzut. Juan Joxe `Udarregi´ Usurbilgua izango da. Ta `Txirrita´k jarri emen zion bertso bat:

Juan Joxe Udarregi
Usurbilko zana,
hamaika egi eder

munduan esana;
kantatu egin arren
kolpeko dozena,
ez zan behiñ´e bukatzen
haren almazena,
gu ez gera iristen,
hura zan gizona!

12. 'Uztapide'ren bertsoa

- **Erref:** DON-148/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Manuel Olaizola Uztapidek behin botatako bertsoa kantatzen du.</p>

13. 'Basarri'ren bertsoak

- **Erref:** DON-148/014
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Basarrik Eltzekondo zenari buruz idatzitako bertsoa abesten du, baita nekazariei buruz Atanon botatako hiru bertsoak ere.</p>

14. 'Txirrita'ren bertsoak Pedro Mari Otañoren despedidan

- **Erref:** DON-148/015
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:27:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Pedro Mari Otañoren Ameriketara joan aurretik Txirritak bota zizkion bertsoak abesten ditu.</p>

Transkripzioa

- Ta Pedro Mari Otaño Ameriketa azkeneko biak in zunian... Hoi [interesantia], hori igual ez ziñun sekula aittuko. Ta `Txirrita´k Pasaira,

barkun ordun joten zian, ta `Txirrita´k hiru bertso, o bi bertso:

Ilbeltzaren hogeita seia
San Polikarpo eguna,
hamaika jendek Antxo aldera
pausua eman deguna,
Amerikara dijudalako
gure Pedro Mari ona,
zeiñek ez luke istimatuko
holako bizi-laguna?

Gero bestia:

Utzi dittuzu leku zabalak,
utzi dittuzu mendiyak,
utzi dittuzu Euskal Herriko
anai ta lagun haundiyak;
zuri begira umildu zaixkit
argi neuzkan begiyak;
eta bide motxian
korritzen duten zubiyak,
berriz´e gerta egin litteke
alkartutzia gu biyak.

Hoi esan emen zion, bai, despedidan. `Txirrita´hoi famosua [baizan].

- Bai. Eta despedida nun in zuten?

- Pasaian, barkun sartzeakuan. Ya abitzea... Barkun sartzen zian Ameriketa
juteko ordun. Pasaia zan tokiya zea.

15. Oiartzungo artzain baten bertsoak

- **Erref:** DON-148/016
- **Iraupena:** 0:05:32. **Hasi:** 00:27:04. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Oiartzungo artzain batek jarriko bertsoak abesten ditu. Soldadutzako laguna zuen.

16. 'Bilintx'en bertsoak

- **Erref:** DON-148/017
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:38:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Bilintxen bertso-sorta bat abesten du. Aipatzen du ez zuela ohiturarik bertsopaperak erosteko, etxean Txirritaren testamentua eta Uztapideren liburu bat baduela, baina ez diola kasu handiegirik egiten.</p>

17. Bi goierritar Donostiako alde zaharreen

- **Erref:** DON-148/018
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:38:11. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Lehengusuari entzundako istorio bat kontatzen du, Donostiako alde zaharreen gertaturikoa, neska goierritar bat eta bere auzoko mutil baten artekoa.

18. Irratian entzundako bertsoak

- **Erref:** DON-148/020
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Irratian entzundako nagusi eta maizter bati buruzko bertsoak abesten ditu.

19. Pello Joxeperen bertsoak

- **Erref:** DON-148/021
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:45:15. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Pello Joxeperen inguruko bertso zaharrak kantatzen ditu Migelek.

20. Mitxelenaren puntu-erantzuna

- **Erref:** DON-148/022
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:50:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Mitxelenaren puntu-erantzun bat kantatzen du.

21. 'Txirrita'ren heriotzari bertsoa

- **Erref:** DON-148/024
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:51:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Txirrita hil zeneko bertso bat abesten du Migelek.</p>

22. Sagardotegietan bertsoan

- **Erref:** DON-148/025
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:51:21. **Bukatu:** 00:54:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Aita bertsozalea zuen, anaiak ez horrenbeste. Aieten "Munto"n parranda itzelak egindakoa da, orduan sagardotegia zegoen bertan. Jende ugari gerturatzen zen, eguerdirako husten zituzten kupelak, oso sagardo ona zen. Euren etxe ondoan bi sagardotegi zeuden, eta inguruan ere asko. Txuletak-eta bertan prestatzen zituzten, brasan. Gau batean bost lagunek 75 botila edan zituzten, goizeko seiak arte egon omen ziren sagardotegian jaten eta edaten, eta ondoren zuzenean lanera, lorik egin gabe.

23. Antiguako jela-fabrikan

- **Erref:** DON-148/027
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:55:18. **Bukatu:** 00:59:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Antigua auzoan jela-fabrika zegoen, Juan de Garai kalean, bertan egiten zuen lan berak. Kamioiarekin banatzen zuten jela Donostia osoko etxe eta tabernetan, orduan izozkailurik ez baitzen. Izotz barra batetik atera behar zirenak baino puska gehiago ateratzen zituzten, diru gehiago ateratzen zuten horrela eta diru horrekin hamaiketako egiten zuten langileek, lapurtu gabe, ordea. Urez betetako barra luzeak sartzen zituzten deposito batean, bertan

izozten ziren barrak, atera eta gantxo batekin zatitzen zituzten. Langile gutxi ziren, hiru errelebo egiten ziren.</p>

24. Antiguako lantegiak

- **Erref:** DON-148/030
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:02:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

<p>Antigua auzoan lantegi ugari zeuden: 'Jabôn Lagarto', 'Suchard'... Inguruko tabernak ez zituzten itxi ere egiten, dirua mugitzen zen bertan. Kanadara eraman nahi zuten Migel, berak ez zuen nahi ordea, dirua bertan irabazi eta bertan gastatu behar zela dio, ez bertan irabazi eta kanpoan utzi dirua. Ez zuen diru askorik aurrezten, parrandazalea baitzen oso.</p>

25. Ezkongabeen haurdunaldiak

- **Erref:** DON-148/031
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:02:24. **Bukatu:** 01:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Orduko parrandak ederrak izaten ziren. Neska-laguntzeak ere izaten ziren, hala ere kontu horiek errespetuz tratatzen zituzten, berak bai, behintzat. Oso gazterik eta ezkongabe, neska asko haurdun gelditzen ziren orduan. Askok Ingalaterrara jotzen zuten abortatzera; umea izanez gero, Fraisorora eraman ohi zituzten.</p>

26. Eliza eta apaiz kontuak

- **Erref:** DON-148/033
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:04:21. **Bukatu:** 01:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Ez da eliza zalea, hamar urte bete zituenerako ohartu zen nondik nora zihoan eliza, ez zen mezara ere joaten. Elizaz ezkondu zen andreak hala nahi zuelako. Ama ere ez zen asko joaten elizara, apaizak ez zituen gustuko, Franco palio azpian eramaten zutela aipatzen du.</p>

27. Boxeo astero

- **Erref:** DON-148/034
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:05:50. **Bukatu:** 01:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kirola » Boxeo

Laburpena:

Boxeo astero festa denetan izaten zen orduan, astero ia. Aietekoak ere aritzen ziren boxeoan, Ugartemendia oso ona omen zen boxeatzen. Apusturik ez zen izaten boxeoan, tabernan bai, musean-eta. Tokan ere aritzen ziren, bolatokian boloetan ere bai.

28. Euskara galarazita urteetan zehar

- **Erref:** DON-148/035
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:07:23. **Bukatu:** 01:09:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskara antzekoa egiten zen Andoainen eta Donostian. Euskara galarazita egon zen urteetan zehar, borroka armatua horregatik ere hasi zen, orain ere egiak esaten dituztenak eramaten omen dituzte espetxera.

29. Francoren zaindari soldadutza garaian

- **Erref:** DON-148/036
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 01:09:37. **Bukatu:** 01:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Autobusean eta Bulebarreko komunetan izandako pare bat istorio kontatzen ditu, euskaraz aritzearren eta kantatzearren gertaturikoak. Soldadutzan zegoela, Franco behin baino gehiagotan egon zen Aieteko palazioan, eta eurek egiten zizkioten zaintzak Francori.

30. Baserrian jateko faltarik ez

- **Erref:** DON-148/037
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:13:18. **Bukatu:** 01:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak

Laburpena:

Baserritarrek elkarren artean harreman estua zuten, euren etxean hiru edo lau txerri hazten zituzten urtean, eta txerriak hiltzean denen artean banatzen zuten. Moilan arraina kargatu eta idi parearekin baserrira igotzen zuten, baratzean ongarri gisa erabiltzeko. Baserrian ez zuten goserik pasa, denetik zuten baratzean, baina oso kontrol zorrotzak izaten ziren eta jasotakoaren zati bat entregatu behar izaten zen. Errazionamenduko ogia ez zitzaion gustatzen, taloa nahiago.

31. 'Txirrita'ren bertsoak III

- **Erref:** DON-148/039
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:16:41. **Bukatu:** 01:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Txirritak kantaturiko bertso batzuk abesten ditu, ligatze kontuei buruzkoak.</p>

32. 'Uztapide'ren bertsoa eta Mitxelenarekin bertsoan

- **Erref:** DON-148/040
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:18:25. **Bukatu:** 01:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Uztapidek Zepairi botatako bertso bat kantatzen du Migelek. Mitxelenarekin askotan aritzen omen zen bertsoan, tabernetan askotan, gau batean goizeko seietan irten ziren tabernatik, Aieteko lagun harakin baten despedida zutela-eta. Tabernatik irten eta lanera joan zen zuzenean. Iparraldean ere baziren bertsolariak, Mattin, Xalbador...</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com